

Eguneko zentroa gizarteratze-premiei erantzuteko

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Gizarteratzeari bideratutako eguneko zerbitzua, banakako laguntza eskaintzen duena, besteak beste esku-hartze okupazionala, hezkuntza arlokoa, terapeutikoa eta lan eta gizarte arlokoa, pertsona bere ohiko inguruetik baztertu gabe.

Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia
- Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzua

Harremana

Interesatua erroldatuta dagoen udalerriko oinarrizko gizarte zerbitzuak.

[Gipuzkoako lurralde historikoko udaletxeak.](#)

Nori zuzenduta

Marjinazio eta edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak, gizarteratze prozesu espezializatua hasiera emateko jarrera egokia daukatenak, prozesu horri jarraitzeko gaitasunarekin eta profesionalen esku-hartzea onartzen dutenak.

Baldintzak

- a) 18 eta 64 urte bitartekoa izatea.
- b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrri bateko errolda, eskaera baino 6 hilabete lehenagokoa eta legezko bizilekua eta benetakoa izatea bertan. Salbuespen gisa, eskaera data baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik Gipuzkoako gizartean errolda daudela frogatzen dutenak legezko bizilekuaren eskakizuna betetzetik salbuetsita geratu ahal izango dira.
- c) Gizarte bazterketa maila jakin bat erakustea, baliabidearen beharra zurtzearen.
- d) Profesionalak gidatutako esku hartze sozialak eta gizarte eta hezkuntza arlokoak onartzeko gai izatea; eta gizarteratzeko prozesua egin ahal izateko baliabide pertsonalak izatea.
- e) Osasun egoerari dagokionez, osasun erakundeetan asistentzia etengabe edo ziklikoaren beharrik ez izatea, eta zentroetan osasun publikoko neurririk hartu behar ez izatea.
- f) Zentroan garatutako programaren helburua larriki asalda dezakeen portaera nahasmendurik eta/edo jarrerarik ez izatea

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko agiriak

- » NA edo nortasuna egiaztatzeko agiria » Erroldatze ziurtagiria

- Udalaren gizarte txostena edo bideratu duen entitatearen txostena.
- Osasun arazoaren kasuan: mediku txostenak.

Eskaera moduak

- » Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

[Gipuzkoako lurralde historikoko udaletxeak.](#)

EBAZPENA

Ebazteko gehieneko epea

Erabakitzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuan eskaera jasotzen denetik.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Ohiko postaz » Jakinarazpen elektronikoa

ARAUDIA

[5/2014 Foru Dekretua](#), martxoaren 4koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapeko bigarren mailako arretako gizartera-tzeko baliabideak eskura-tzeko prozedura arau-tze-koa (52 zk. GAO, 2014ko martxoaren 18koa).

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

Mota honetako zerbitzuen erabiltzaileak egoitza zentroetan dauden pertsonak izan daitezke, baina baita etxean bizi direnak eta gizarte laguntza edo hezkuntzako esku-hartze jarraitzailea behar dutenak.

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 legearen 93.5 artikulua xedatutakoari jarraituz, zentro batetik kaleratzeak hurrengo 6 hilabetetan zerbitzua jasotzeko eskubidea eten egingo du. Epe hori amaitzen denean hasiera eman ahal izango zaio zerbitzua jasotzeko eskubideari.